

## DAMON ETA PITIAS (SIRAKUSA)



Sirakusa'n, Kristo baiño lenagoko V gizaldian adiskide aundi bi bizi ziran: Damon eta Pitias. Dionisio ankerra zan an agintari.

Dionisio ankerrak ez eban bear zio aundirik gizaki bat ilteko eta begitan artu eban Pitias eta ilteko agindu be bai. Pitias'ek sendo entzun eban agintariaren erabagia eta erabagia bete baiño len mesede bat eskatu eutson: Etxekoak agurtzeko eta gauzak ondo moldatzeko, illebeteko epea.

Barri txar ori entzun ebanean Damon, Pitias'en laguna, joan zan Dionisio'ren aurrera eta laguna itzuli-arte bera egongo zala espetxean esan eutson. Dionisio ortarako gertu egoan eta Pitias'eri emon eutson illebeteko epea gauzak atontzeko, baiña ez daitela aitzu epea amaitzen danean. Eltzen ez ba'zan, bere lekuan geratzen zan Damon ilgo ebala.

Irurak batera zirala, joan zan Pitias bere etxera, esan eutsen etxeokoi zer jazo jakon eta bideak artu ebazan bera ilten zanean etxeokoi bakean bizi eitezan eta uriburura itzultzeko prestatu zan. Agurtu ebazan etxeokoi eta adiskideak eta guztiak samintasunez beteta itzi ebazan eta bera be biotza erdibiturik.

Uribururako bidea luzea zan eta berak ainbat lasterren eldu nai eban bere orde espetxean egoan Damon zintzoa askatzeko. Baiña asmo guztiak ez dira beteten eta itzultzeko orduan oztopo asko aurkitu ebazan: ekaitzak, uriolak eta abar...

Sirakusa'ra sartzeko atera eldu zanerako ordu gitxi peitzen ziran Dionisio'k emondako epea beteteko.

Arin eta larri joian Sirakusa'ko kaleetan agintariaren jauregi-aldera. Arnas-estuka, ito-bearrean igon eban jauregiko mailladi luzea eta agintariaren gelara sartu zanean, ikaratuta geratu zan: Orduantxe jazo eban aizkorea zigortzailleak Dionisio'ren aurrean Damon'eri samea ebagiteko. Eta Damon gizajoa, enbor gaiñean samea ebala, jainkoari erreguka egoan.

Itxaron! Ez il Damon!- oi u egin eban Pitias'ek-emen nator!

Zurtz eginda geratu ziran guztiak Pitias agertu zanean, aizkorea eskuetan eukan zigortzaillea bera be bai. Arian ketan joan zan Pitias Damon makurtuta egoan lekura eta bere lagunari eskerrak emon-ondoren bere samea ipiñi eban enbor-gaiñean.

Dionisio ankerra ta biotz gogorrekoa zan, baiña ori ikusita arritu egin zan oso-osoan lagun bi arein adiskidetasuna ain aundia zala ikusi ebalako. Beste egun baten beteko ebala bere zeregiña esan eutson zigortzailleari eta lagun biak alkarragaz jolastu egiela agindu eban. Pitias'eri zigorra parkatu egin eutson. Arrezkero lagun bi orrei bakean izten eutsen eta bien lagun izaten alegindu zan Dionisio erregea ankerra.

### OLAZAR'tar Martin'ek

#### IZARRA

Ortzia urdin dago  
ederra dariola  
egal danetatik,  
oi gau zoragarria,  
urra dariozu  
zeru urdiñetik.

Nor da zure Egille.  
izardi zoragarri,  
uridin bikain ortan...  
zure jakituria  
norengandik datortzu  
maitasun orretan...

Bat bera, bakarrik, da  
ori egin leikena...  
zeru-lurren Jauna,  
eta izar guztiak  
aintzaz goratzen dabe  
zerutar Jabea

#### MAITASUNA

Loreen lorea zara  
biotz danak bigunduz  
gozotasunagaz,  
jakituri ederra  
eztitu dozu zugaz  
laguntasunagaz.

Gorrotorik ez dozu,  
bake ta poza dira  
lagunik nenak,  
gizarteko kateak  
urrez jantzia daukaz  
lurreko semeak.

Anaitasuna dator  
soiñurik ederrenaz  
gizarte maitera,  
gizadia aurrera  
gogorik onenagaz  
bizi izatera.

PAULIN